



Euskal herritarron eskuzabaltasuna

Pilar Elorrieta*



Ehun- eta organo-transplanteen garapena handia eta ikusgarria izan da azken urteotan. Edonola ere, 1994. urtea hito garrantzitsua izan zen Euskal Autonomi Elkartearen. Gaixoen bizi-kalitate fisikoa eta sikikoa nabarmenki hobea izan da, gaixo horiei gizartearen integratzeko bide berriak eskaini zaizkie eta Osasun-Erakundeetan itxaron-zerrendak ebitaezinak diren minimoetara ekarri dira.

Alabaina, organo-emaileen urritasuna da gaur egun ere, transplanteen garapena gerarazi dezakeen faktore nagusia. Horren ondorio zuzena dira gizartearen informatzeko eta kontzientziatzeko burutzen ari diren kanpaina guztiak, azken batean gizartearen osatzen dugunok baikara gure gorputzen jabe bakarrak eta, ondorioz, gu guztion eskutan dago transplantearen mirari txiki hori errealitate ukigarri bihurtzea.

Orain arte lortutakoa zenbait faktoreren ondorio zuzena da. Batetik, herritarren eskuzabaltasun eta elkartasun txalogarriaren ondorio, gure herriedeek bizirik segi dezaten oinarrizko jarrera baita. Bestetik, organo-emaileen detekzioa eta jarraipena egiten duten medikuntzako profesionalen eta transplantezain erazketa-prozesuak aurrera ateratzen dituzten arteko lankidetzaren ondorio, azken hau ere lorpen handia izan da.

Guzti horretaz zuzenean arduratzen diren profesionalen gain, laguntza-taldeak daude. Ospitalizazio-zentruetako langilego ez-sanitarioa, SOS-DEIAK edo Ertzantza, aireportuetako langile eta erakundeak, forentse, epaile eta epaitegietako langile oro, komunikabideak, Alcer-Euskadi eta lurraldeetako erakundeak, Ospitaleetako sail desberdinetako zuzendaritzak eta Osasun-Saila.

Gero eta gehiago gara. Transplanteen Koordinatzaile Taldeak aurrikusten duen organo- eta ehun-emaileen kopurua % 60 handiagotu da 1992. urteaz geroztik.

Aitzitik, benetako emaile eta emaile potentzialaren arteko erlazioa gutxiagotu egin da, familiak uko egiten duen kasuak edo kutsakorak diren infekzio biralenak, % 1,5 eta % 10 hurrenez hurren, handiagotu direlarik. Hala ere, Euskal Autonomi Elkartearen emaile-tasak oso altuak

dira, munduko herrialde gehienetakoak baino altuagoak (PMP-ek emandako datuen arabera, EAE: % 92,7; Austria: % 72; Espainia: % 65,2; Frantzia: % 51,3; Suezia: % 43,4; Erresuma Batua: % 41,1 eta Alemania: % 39,7).

Emaien ahalegina ez da ezerezean gelditzen. Euskal Autonomi Elkartearen transplanteen bilakaera ulertzeko, atalez atal egindako azterketa aipa genezake.

Esaterako, 123 giltzurrun-transplante burutu dira (PMP/ % 58,9), mundu osoan egiten diren artean puntako maila lortuz. Horri esker, giltzurrunetako gutxiegitasuna jasaten duten gaixoen % 56ri injertoa txertatzea lortu da. Bestalde, 13 bihotz-transplante (PMP/ % 6,2) eta 30 gibel-transplante (PMP/ % 14,4) egin dira. Bestela esanda, azken lau urteotan, 50 euskal herritarrek bihotz-transplantea jaso dute eta 95ek gibel-transplantea. 196 kornea-transplante egin dira (PMP/ % 93,8), 1993an Estatuko tasa PMP / % 43 izan zelarik. Beste toki askotan ez bezala, transplanterako hezurak lortzea eta txertatzea erabat finkatuta dago. Horrekin batera, lau emaileen azala jaso da eta horrek komunitateko beharrak asetu eta Madrilgo La Paz Eritetxera azala bidaltzeko modua eskaini du. Azkenik, Arantzazuko Amaren Ospitalean 35 hezur-muineko transplante egin dituzte (PMP/ % 17).

Transplanteak burutu ahal izateko, funtsezkoa da herritarren kolaborazioa. EAEn jasotzen ari den oihartzuna txalogarria dela esatea ez da harrokeri hutsa. Horri eta gainerako eragileei esker, esaterako, PMP erakundeak gibel-transplanteetarako zehazten dituen itxaron-zerrendak beste inon baino txikiagoak dira gurean. Giltzurrun-transplantea behar dutenen zerrenda luzeagoa bada ere, bihotz-transplantea egonkor mantentzen dela esan daiteke.

Hori guztia emailei esker gertatzen da. Oraindik bizirik dagoela organoak emateko borondateak azaltzen duen emaileari edo, heriotzaren aurrean ere, besteekiko elkartasuna adierazten duten familiariekoei, guztioi, zerbait esan nahi dizuegu: Eskerrik asko.

* Gurutzetako Ospitaleko Ospitalarteko Koordinatzailea